

zakilixut

© Olariagak



Luis Karlos Garcia | GASTEIZ

ATZECOZ AURRERA

Araba, Nafarroaren gisara

Aldundiak bide-seinaleetan toponimo eta testuak erdara hutsean jartzen jarraitzen duela salatu dute



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Mañueta, Arabako Errioxako herriaren sarreran gaztelania hutsezko bide seinalea paratu du Foru Aldundiak.

Oca da. Gasteiztik irten eta Bilborako autobidea hartuz gero, Arangizen, Aldundiak soilik gidari erdaldunari ohar-tarazten dio behe lainoa baldin badago. Aiara aldeko euskaldunak asper-asper eginda daude Luiaondora doan errepideko seinalean *Luyando* eta *Luxaondo* baino ez daudela ikusirik. «Administrazioek Euskaltzaindira jo behar izaten dute argibide bila horrelako kasuetan», esan du izenik eman nahi ez duen Laudioko euskaldun batek, «baina sarri askotan Akademiaren gainetik pasa, eta nahi dutena jartzea erabaki ohi dute».

Prebarikaziorik arinena

Oraintsu etsenplu gehiago. N-1etik Espainia alderako bidaia egin behar duenak, Gasteiztik gertu, *Vitoriako* garraio gunea iragarrita dagoela ikusten du ezustean. Horrelakoak jakinda, inor ez da asaldatzen Aldundiaren web orriko mapetan *Kampezu* topatuta edo euskarazko bertsioaren irudi kartografiko osoa gaztelaniazko izenek osatuta dagoela ikusita.

Agintaritzaren axolagabekeria zerrenda ez da makala; ondorioak, berriz, euskaldunon bizkar. Euskal Herrian Euskarazko Urko Aierbek uste du «gutziz larria» dela erakundearen prebarikazio ariketa hau, errepideetan ipinitako bide-seinale batzuk hamar urtez legez-kotasuna bete gabe egongo direla argi eta garbi edukita. Euskaldunon aurkako prebarikazioak, ordea, prebarikazio gutxi omen.

Mañueta Arabako Errioxako hegomendebaldeko herririk da, Espainiako mugaren ondo-ondoan. Eskualdeko alkate abertzale askok ez bezala, Mañuetakoak (PP) lortu egin zuen Arabako Diputazioak (PP-UA) errepidearen konpontzea pagatzea. Alabaina, obra bukatuta, gaztelania hutsean zeuden

herriko sarrerako bide-seinaleak: *Baños de Ebro*.

«Aitzakiarik ez jarri. Mañueta izena kendu duzue hala nahi duzelako, eta kito!», aurpegiratu zion atzo EAJko Jantxu Martinezek Antonio Aguilar Garraio eta Herrilan diputatuari, Biltzar Nagusietako bilkuran. Diputatu popularrak adierazi zuen Aldundiak ez duela hutsik egin,

obra zegoen tokia ez baitzen euskarazko izena jarri behar... Nolanahi ere, azalpenean baino esfortzu handiagoa egin zuen gero, euskarazko esaldi batzuk irakurri zituenean hizkuntza ikasi eta kalean hitz egiteak duen garrantziari buruz.

Errioxakoa ez da inongo berrikuntza Araban. Nahiz eta azken urteetan auziak dezenteko

hobekuntza izan duen, badirudi Arabako Aldundiak, UAren *Alava, como Navarra (Araba, Nafarroaren gisara)* leloari jarraiki edo, oso gogokotzat hartu duela Miguel Sanzen hizkuntza politika.

Adibideak ez dira gutxi batzuk. Langraitz aldean errepide berria zabaldu dute, baina helduleku bakarra *Nanclares de la*